

noaua

**Santixabelak, aurten,
uztailaren 1etik 5era**

**Otsailaren 26an
Akerra proiektua
aurkeztuko zaie
txokoaldetarrei**

**Inauterietako giroan
murgiltzeko eguna
iritsi da**

**Haritz Arrizabalaga:
“Legealdiko
erronka nagusiak
zubietarrekin batera
adostu nahi ditugu”**



Lorategiko altzariak!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak
30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229 Petritza bidea 12, Zubieta

BAZKIDEEN TXOKOA 

Otsailaren 21ean Zozketatuko dugu:

URDAIRA SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO afari edo bazkaria

NOAUAREKIN TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

Albiste iruditan

Usurbilgo jaiak, uztaileen 1etik 5era

Herriko festen prestakuntza lanak abiatu dira. Usurbilgo Jai Batzordeak otsailaren 12an Potxoenean eginiko lehen bileran hartutako lehen erabaki irmoa duzue honakoa: herriko festak uztaileen 1etik 5era ospatuko ditugu aurtengoan.

Festa egunen kopurua eta epea finkatzearekin batera, lehen proposamen zehatzak ere jasotzen hasi zen Jai Batzordea. Horiek definitu eta egitaraua osatzen segiko dute hurrengo hilabeteotan: noiz zer ospatu, aurrekontuak zehaztea, festa parekideen inguruko lanketa... Usurbilgo jaiak prestatzen segitzeko Jai Batzordearen hurrengo bilera irekia norbanako nahiz eragileentzat, martxoaren 4rako finkatu dute arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.



Hurrengo bilera irekia, martxoaren 4an arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Laburrean

1956an jaiotako bazkaria

1956 urtean jaiotakoek bazkaria antolatu dute. Otsailaren 29an batuko dira, eguerdiko 14:00etan, Saizar jatetxean. Bertara joateko asmoa baduzu, honako telefono zenbakira deitu: 943 370 255 (Mari Kar-men).

Argazkilarien erakusketa ikusteko azken egunak

Einean guraso eskolak antolaturiko ikastaroen artean da Ibai Arrietak oinarrizko argazkilaritzari buruz eskaintzen duena. Ikasleek eginiko argazkien bilduma ikusi ahal izango duzue Sutegiko erakusleioan, otsailaren 10etik 23ra.

Hurrengo odol ematea, martxoaren 2an

Bi hilean behin izan ohi da. Usurbilgo Odol Emaleen Elkarteak datorren hitzordua iragarri berri du: martxoaren 2an izango da, astelehenez, arratsaldeko 18:00etatik 20:30ak bitartean, anbulatorioan.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Disinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Eutanasia

Eutanasia hitzak heriotza ona esan nahi du, sufrimendurik gabea. Eutanasiaren legea eztabaibatzen ari dira egun hauetan Espainiako legebiltzarrean. Ziur aski onartua izango da oraingoan; izan ere bi aldiz saiatu ziren lehen ere, baina bertan behera utzi beharra izan zuten hauteskundeak zirela eta. Orain, aldiz, ez dirudi oztopo handiegirik izango denik eutanasiaren legea onartzeko, gehiengo alde baitago.

350 diputatu daude legebiltzarrean eta horien artean 140k emango diote ezezkoa lege berriari. PPkoak eta Voxekoak dira. Sozialistek tesi hau aldarrikatzen dute: guk bizia defendatzen dugu, baina ez bizitzeko obligazioa norbaitek bere bizitza sufrimendu huts bihurtu dela adierazten duenean, bere osotasun fisikoa eta morala guztiz hondatuta edo erositatuta sumatzen dituenen. Inork ezin ditu behartu eri

horiek baldintza txarretan bizitzera.

Testu honen erregulazioak darama berekin Kode Penal aldaztea, lege organikoaren maila baitu. Beraz, legearen protokoloari jarraituz laguntzen bazaio gaixoari, inor ez da delitu baten erantzule izango. Zein protokolo edo prozesu jarraitu behar da? Lehenbizi, adin nagusikoa izan behar du eta ezaguera osokoa eutanasia eskatzeko; adin txikikoek eta erabakiak hartzeko gai ez direnek ezin dute eskatu. Bigarrenez, eskaera hori ezin du egin beste pertsona batek; edozein unetan indargabetu daiteke gainera. Eta hirugarrenez, testiguak behar dira, horien artean osasun arloko profesionalak eta komisio kontrolatzaile bat. Hilabete baino gehiago ez luke pasa behar gaixoak sendagileari egin dion eskabidea bete ahal izateko.

Gai hau oso konplexua da, askotariko ertzak ditu. Iritziak ere oso ezberdinak daude eutanasiaren gainean; nola ez ba,

“zenbat buru hainbat aburu” dio gure esaera zahar batek. CISek dioenez, ehuneko 70ak nahi du eutanasia erregulaztea; katolikoen artean %60k. Teologo batzuek diotenez bizia da Jainkoak eman digun erregaliarik ederrena, baina bera bakarrik da jabea. Beste batzuen iritziz norberak administratu behar du bizia autonomia osoz. Talde handi baten arabera, zainketa paliatiboak edo aringarriak landu behar lirateke batez ere. Beroien helburua: sufrimendua gutxitzea da eta bizi kalitatea hobetzea.

Javier Sádaba filosofo ospetsuaren ustez “hay que decir que morir dignamente significa respetar la libertad del individuo al final de su vida”. Duin Hiltzeko Eskubidearen aldeko elkarteak dio: “Bizitza eskubidea defendatzeak ez du esan nahi pertsona bat bizitza ez duina eramatera behartu behar duzunik onartezina den sufrimendura eta nahi ez duen bizitza batera behartu behar duzunik”. Joan Mari Irigoien

(Altza,1948) idazleak ELA gisako gaixotasuna dauka eta hurbil ikusten du heriotzaren ordua. Eutanasiak: “nik badaikit zer iturritik edan dudan neure galdera existentzialei erantzun egokia (?) emateko. Argi daukat kristau tradizioa izan dudala erreferentzia nagusia. Zertara etorri zen Kristo, oinazea santifikatzea edo hura murriztea? Nik ez daukat dudarik. Kristok, izan ere, herrenak sendatzen zituen, baita gaixo errukarri sentitzen ziren guztiak ere. Kristo ez zen, beraz, masokista inpenitente bat, baizik eta oinazearen aurka borrokatzen zen gizon ezin eskuza-balagoa”.

Eta amaitzeko, bere poesia baten zatitxo hau: “Printzesa urrun baten izena duzu, Eutanasia, / baina nik gertuago nahi zintuzket./ Zu, Eutanasia, ene azken orduko esperantza; /zu, azken hatsa/ zu, ene Buda errukibera;/ barkatu atrebentzia, hurrengoan Eutanaxi deitzen badizut...”.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbegozo

Apirilaren 5eko hauteskundeetan posta bidez bozkatzea eskatzeko epea zabalik da

Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeak deitu dituzte apirilaren 5erako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Hemen hitzordu horri begirako deialdien berri:

■ Otsailak 11-martxoak 26: posta bidez bozkatzea eskatzeko epea Correoseko bulegoan (atzerrian bizi direnek martxoaren

7ra arte).

■ Otsailak 26-martxoak 2: hautagai zerrenden aurkezpena hauteskunde batzordeetan.

■ Martxoak 7-11: hautesleketako mahaiak osatzeko kideen zozketak.

■ Martxoak 10: hautagai zerrenden argitaratzea.

■ Martxoak 16-29: posta bidez bozkatzea eskatu dutenek beharrezko dokumentazioa jasoko dute.

■ Martxoak 20-apirilak 3: hauteskunde kanpaina.

■ Apirilak 4: hausnarketa eguna.

■ Apirilak 5: hauteskunde eguna.

EHBilduren herri batzarra Potxoenean

Ostegun honetarako, otsailaren 20rako, herri batzarra deitu du Usurbilgo EHBilduk 18:30etan Potxoenean. Koalizioaren Gipuzkoako koordinatzaile eta Oresako alkate Eneko Maioz gonbidatu dute hitzordura.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: otsailak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 24.

Txokoalden auzo-bilera deitu dute otsailaren 26rako



Udalak deitu du bilera. Otsailaren 26an iluntzeko 19:30ean elkartuko dira eta Akerra proiektu berria aurkeztuko dute bertan.

Txokoaldeko bizitza hobetu, auzotarren beharrak identifikatu eta auzoaren etorkizuna diseinatzeko aritu dira bizilagunak eta Udala, Hiritik At Kooperatibak bideratuta udazkenean zehar Akerran egin duten parte hartze prozesuaren bidez. Gaztetxea izandakoa etorkizunean txokoaldetarren bilgunea izatea proposatzen da. Prozesu hartan

bildutako ekarpenekin Udalak landua du proiektua, 2020ko udal aurrekontuetan ere egitasmo hau gauzatzeko 200.000 euroko partida bat jaso du. Orain arte egindako lanketa aurkezteko ordua heldu da. Udalak auzotarrek bilera deitu du otsailaren 26rako iluntzeko 19:30ean aipatu eraikinean, Akerra proiektu berria aurkezteko.

Kalezartarren beharrak biltzeko, bilera irekia



Udal ekipamendu gabeziaren hutsunea beteko du Pelaiouenea berrituak. Bilera otsailaren 26an egingo dute, 19:00etatik aurrera Haur Eskolan.

Usurbilgo udal gobernu taldea kalezartarrekin bilduko da otsailaren 26an, iluntzeko 19:00etan Haur Eskolan deitu duen hitzorduan. Gogoan izan, Kalezar erdiguneko Pelaiouenea eraikina birgaitzen ari da Udala. Bi egitasmoren bilgunea izango da: Emakumearen Etxearena eta kalezar-

tarrentzako udal-ekipamenduarena.

Otsailaren 26an, Haur Eskolan Hilaren 26ko bilera horretara dator, auzotarrek bildu eta haien beharrak jasotzera, "eraikinen barruko aldea marrazten eta zehazten lagunduko baitie horrek".

Ika-mika

Gabriel Valini erantzunez

Aurrera Gattunk 2 gutuna harriduraz irakurri dugu, eta halako kritika ezin ulerturik, azalpen batzuk eman nahi ditugu. Ez da inondik ere gure estiloa: komunikabideetako idatzi-erantzunak baino, mahai bueltakoak nahiago. Baina hain nabarmen interpelatu zaigunez, honatx azalpenak.

Hasteko, aipatzen dituzun energia eta elikadura burujabetzak udal-gobernuaren ildo estrategikoak dira. Halaxe jaso dugu Legealdiko Planean. Klima aldaketarena begi bistako erronka da, eta eredu jasangarriago baterako trantsizioa, ezinbestekoa, maila lokalean zein globalean. Gure kontsumo- eta mugikortasun-ereduak aldatzeko premian gau-

de, eta bi-biek udal-kudeaketa arduratsuagoa eta herritarren konpromisoa eskatzen dituzte: 51 neurri jaso ditugu aipatu planean. Bistan da: ingurumenarekin harmonian bizitzea gure jardunaren ardatzetako bat da.

Gainerako auzoetan bezala, Kalezarren ere izan ginen 2020ko aurrekontu-proiektua aurkezten, eta auzotarrek ez zuten aipatu energia berriztagarrien proposamenik. 2018an egin zenuen proposamenari orduko alkate Xabier Arregik erantzun zion, oso interesgarria zela esanez, baina ildo horretan, lehen-lehenik, Zubietako proiektua burutu behar zela: hori amaitu eta sendotzean Kalezarkoa aztertzeko aukera aipatu zuen. Gu

ere bat gatoz, eta horretan ari gara. Beste hamaika lan-ildo ere baditugu martxan, batzuk aipatzearen: ingurumen eta nekazaritza dirulaguntzak, gizarte zerbitzuek herritarren energia ahalduntzean egiten duten lana, Led argiteriaren inbertsioak, kiroldegiko instalazio fotovoltaiko berria edo Zumarte geotermia bidez berotzea.

Elikadura burujabetzari dagokionez, beste hainbeste. Eskualdean, elikadura subiranotasunari buruzko Beterri Km0 ekimena bultzatzen ari gara, marka propioarekin: Usurbil km0. Tokiko produktuen berri emateko sustapen ekintzak egin dira, eta herriko ekoizle eta baserritarrek elkarlanerako gune bat daukagu. Hor

abiatzen ditugu egitasmoak: irekia da, parte hartu nahi duten guztientzat.

Usurbilen erabaki politikoak hartzeko eredu aldaketa beharrezkoa eta premiazkoa dela diozu. Ados gaude, ez baitugu udal-jarduna herririk gabe ulertzen: administrazioak irekia, gertukoa eta gardena izan behar du, herritarrek eta eragileekin lan egingo duena, eta udalak horretarako baldintzak sortu behar ditu. Gure bulegoetako ateak guztientzat irekita daude. Halako kritika aterik jo gabe jasotzeak ezustean harrapatu gaitu: zilegia da, noski, baina lekuz kanpoko iruditu zaigu. Diozun bezala, gu ere bagattunk!

Usurbilgo udal gobernu taldea.

Unai Muñoa: “Probak egin eta jolastuz sortzen diren esperimentu txiki horiek handi egiten dira askotan”

Bertsolaria da Unai Muñoa eta urteak daramatza Udarregi Ikastolan lanean. Hezkuntzaren arlora eraman du bertsolaritzak plazetara baino gehiago, baina Buhameak taldeko partaidea ere bada. Musikari eta bertsolarien arteko fusiotik sortutako ikuskizun berria estreinatu berri dute “Erik eta Win”. NOAUA! aldizkariarekin izan da bertsolaria proiektu berriaren xehetasunak elkarbanatzeko.

NOAUA! Zu bertsolaria zara, noiz eta nola piztu zitzaizun bertsotarako grina hori?

Unai Muñoa: Berez etorri zitzaidan, nire errealitatearen baitan. Nire aita bertsolaria zen eta nire etxean bertsolaritza beti bizi izan da. Egoera horrekin, oso ongi ez dakit nola,



Musikari eta bertsolarien arteko fusiotik sortutako ikuskizun berria estreinatu berri dute: “Erik eta Win”.

UDARREGIN IRAKASLE

“Irakaskuntzako bidea jorratzen ari naiz eta nire bokazioa aurkitu dut bertan; ikasleekin eta hezkuntza arloan. Espazio emozional eta kultural bat sortzea da xede nagusia”

baina txikitzen horri heldu nion nik ere. Aita imitatzen saiatuko nintzen bost urterekin edo ez dakit; orduan Berrobin bizi ginen eta bertsolaria deitzen zidaten haurra nintzela. Ez bertsotan ongi egiten nuelako, baizik eta planta hori jartzen nuelako eta kantatu ere zerbait egiten nuelako. Nire bizi-tzaren parte izan da betidanik,

hala deitzen zidatelako eta azkenean nik neuk ere sinetsi egin nuen.

Urteak daramatzazu Udarregi Ikastolan irakasle. Bertsolaritza ofizio gisa har al daiteke?

Bai, 16 bat urte daramatzat bertan. Niri bertsolaritzak ez dit eman plazaz plazako jardunean aritzeko bide hori. Plaza batzuk egiten ditut, baina gehienbat irakaskuntzako bide hau jorratzen ari naiz eta nire bokazioa aurkitu dut bertan; ikasleekin eta hezkuntza arloan. Espazio emozional eta kultural bat sortzea da xede nagusia, gazteen arteko harreman sanoak eraikitzeke, eta jakina, bertsotan aritzea. Sortzaile izateko modua da nolabait; sorkuntza lantzeko modu polita da bertsolaritza.

“Ikuskizunak asko du antzerkitik”

NOAUA! Buhameak taldean daramatzazu jada urtetxo batzuk; musikari eta bertsolariak uztartzen dituen taldea da. Bertso musikatuaren panorama hau bertsolaritzaren etorkizun modura uler-tzen duzu, edo modalitate berri bat gehiago da?

Unai Muñoa: Buhameak herriz herri ibiltzen ziren ijitoak ziren; festak eta bestelakoak egiten zituzten titiritero moduko

pertsona batzuk ziren. Iparraldean buhameak deitzen diete, eta guk ere badugu zerbait hortik. Gure diziplinetatik kanpo ere ibiltzen gara eta enkarguak ere egiten ditugu. Lantzen duguna ez da bertso musikatu soilik, antzerkitik asko du. Bi bertsolari ere bagaudenez asko tartekatzen ditugu bertsoak, bertso musikatuak, baina hori baino gehiago da. Antzerki saio bat

dela esan daiteke, baliabide asko biltzen dituen: bertsoa, musika, poesia... Bertsolaritza zabaldu egin da beste diziplina batzuetara ere. Modu naturalean gertatzen diren panoramak dira. Diziplina ugaritako jendea ezagutu eta nahi gabe ere nahastu egiten dira guztiak. Probak egin eta jolastuz sortzen diren esperimentu txiki horiek handi egiten dira askotan.



“Bertsolaritza zabaldu egin da beste diziplina batzuetara”.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ETXETRESNEN   

KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

  645417665

XABIER Usurbil

Zuen
publizitatea
hemen

 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

“Gure erlazioaren tripak atera ditugu nolabait”

NOAUA! “Ez gara Palestinaz ari!” izan zen zuon estreinako lana eta orain “Erik eta Win”, bigarren lana plazaratu duzue. Zeintzuk dira antzekotasun eta desberdintasun nagusiak?

Unai Muñoa: Antzekotasunak nabarmenak dira, filosofiatik bertatik hasita. Ez da inola ere “Ez gara Palestinaz ari!” lanaren bigarren zati bat edo jarraipen bat. Estetika eta errekurtoak mantendu ditugu. Anderrek eta biok lanketa terapeutikoa egin dugu gure barrua aztertu eta ezagutzeko. “Ez gara Palestinaz ari!” ibilbide hori publikoarekin partekatzeo sortu genuen, askapen prozesu modura ulertuta. Konturatu ginen gure esperientziekin jendea identifikatuta sentitzen zela edo antzeko bizipenak bazituela behintzat. Askotan oso ohituta gaude gainontzekoak seinalatzen, zer egiten duten gaizki esaten, edo munduak nola aldatu beharko lukeen esaten. Oso gutxitan jartzen gara aldaketa horren zentroan gu, edo aldaketa horren eredu gisa. Guk inor seinalatu gabe gure istorioa kontatu nahi genuen, eta horren bitartez galdera ikurrak sortu gainontzekoenean. Beldurra geneukan epaituak izatekoa edo gure



“Bikote bat irudikatu nahi izan dugu: nola elkartu garen, gure perfilak nolakoak diren, nola elkar tratatu dugun, nola elkarrekin lehiatu dugun... Gure erlazioaren tripak atera ditugu nolabait”.

UNAI MUÑOA

“Guk inor seinalatu gabe gure istorioa kontatu nahi genuen, eta horren bitartez galdera ikurrak sortu gainontzekoenean”

mezuak publikoari ez iristearena, baina biluzte emozional horrek oso ongi funtzionatu zuen eta gure helburua bete zuen. “Erik eta Winek” ere filosofia hori jarraitzen du, baina gaia

oso ezberdina da. Lehen lana indibidualistagoa zen, ni eta neure beldurrak erdigunean jarrita, eta bigarren hau gure arteko harremanean oinarritzen da gehiago. Bikote bat irudikatu nahi izan dugu: nola elkartu garen, gure perfilak nolakoak diren, nola elkar tratatu dugun, nola elkarrekin lehiatu dugun... Gure erlazioaren tripak atera ditugu nolabait.

Horrelako ikuskizunetan inprobisazioa da nagusi edo bertso idatziak kantatzen di-

tuzue?

Inprobisazioa baliatu dugu sorkuntza prozesuan, gidoia eta eszenak sortzerakoan. Ez gara bulego batean jarri papera eta boligrafoa hartuta, inprobisatzen hasten ginen eta horrek eraman gaitu obra berria sortzera. Maila horretan da inprobisatua lana, gerora borobildu egin ditugu zenbait gauza. Obra bera beraz, ez da inprobisatua, milimetroraino neurtuta daukagu bai kantatzeko modua, bai mugitzeko modua.

Ez gara Palestinaz ari! lanaren segidan datorren ikuskizuna

NOAUA! Usurbilen erakutsi zenuten duela urte batzuk Ez gara Palestinaz ari! lana. Nolako harrera izan zuen orduan?

Unai Muñoa: Oso ongi joan zen eta oso ongi pasatu genuen guk ere. Oso emozionala izan zen, zeure buruari ate bat irekitzen diozu eta publikoari ere bai bere atea. Mundu batean bizi gara non gauza batzuk ezkutatu egiten ditugun, ate batzuk itxita, gauzak guretzat gordetzen... Jendea hunkitu

ere egin dugu, barre eginarazi eta negar ere bai zenbaitetan. Energia asko mugitu dugu.

Euskal Herrian orokorrean nolako harrera izan du?

Hasieran geneuzkan beldurrak eta gero, jaso dugun erantzuna oso positiboa eta ezustekoa izan da. Publiko oso anitza aurkitu dugu; gazteak, helduak, emakumeak, gizonak... denen feedbacka jaso dugu. Helduak hunkituta

sarri, gazteak identifikatuta. Berrito ikusi nahia ere sentitu genuen. Zenbaitek behin baino gehiagotan errepikatu zuen gu ikustearena. Nahiko sakona izanik lana, barne bidaia hori errepikatu nahi zutenekin aurkitu ginen eta hori berezia zen guretzat. Ez da normalea izaten obretan, behin ikusi ohi dira antzerki obrak. Leku batzuetan errepikatu ere egin genuen: Hernanin, Lasarte-Orian...

Erik eta Win lana ikusi nahi dutenentzat, interesatuek non eta noiz izango dute aukera berri bat?

Lugaritzeko estreinaldiaren ondoren, hilaren 14an Asteasun izan ginen, martxoaren 27an Zaldibian izango gara eta apirilaren 4an Oiarzunen. Kontakutuan gaude beste hainbat herrietako eragileekin eta saio gehiago ere aterako dira, baina momentuz lotutakoak horiek dira.

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga Aranjuezeko espetxean dira

Urtarrilean hedabideek aurreratu dutena bete da; espetxez aldatu dituzte Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga, Valentziako Picassentetik Madrilgo Aranjuezera. Nabarmentzeko modukoa da ordea, espetxe aldaketa gauzatzeko zenbat denbora behar izan den. Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik NOAUA!ri aditzera eman diotenez, otsailaren 4an atera zituzten Valentziako Picassenteko espetxetik. Madrilgo Aranjuezera 350 kilometro daude, baina astebete behar izan zuten bidaia hau egiteko, “astebete 350 kilometro egiteko!”, salatu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

Bidean zenbait espetxetan izan dituzte Olatz eta Patxi. Biak batera atera zituzten arren, gerora kartzela desberdinetara eramane zituzten. “Biak ala biak otsailaren 4an atera zituzten Picassentetik (Valentzia) eta Villenakora (Alacant) eramane zituzten aurrena. Gero Patxi Valdemorokora eta Olatz Soto del Realekora”, azaldu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

Tarte horretan gainera, Patxi Urangaren “inolako berririk gabe” izan dira senide eta lagunak, “ez diotelako deirik egiten utzi”.

Astebeteko bidaiaren ostean, aipatu bilgunetik NOAUA!ri aditzera eman diotenez, otsai-



Bidaian Olatz eta Patxi bereziak izan ondoren, Aranjuezen ere berezita segitzen dute.

USURBILN NAHI DITUGU

“Patxi eta Olatz ez dituzte, esan zuten bezala, elkartuta jarri ziega berean.

Itxaron egin behar dutela esan omen diete, noiz arte zehaztu gabe”

laren 10ean heldu zen Patxi Uranga Aranjuezera. Biharamunean, hilaren 11n, Olatz Lasagabaster.

Bereizi eta hilabetera, lehen bisita

Bidaian Olatz eta Patxi bereziak izan ostean, Aranjuezen ere berezita segitzen dute. “Ez dituzte, esan zuten bezala, elkartuta jarri ziega berean.

Itxaron egin behar dutela esan omen diete, noiz arte zehaztu gabe”, ohartarazi du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Bitarte horretan, Olatz amen modulura eramane dute, “han dagoen beste euskal preso batekin egoteko aukera du. Aldiz, Patxi ez dute beste euskal preso gizonetako dagoen moduloan jarri”.

Testuinguru honetan, urtarrilaren 19an 3 urte beteta guraso dituen Olatz eta Patxiengandik bereizi zuten Xua. Otsailaren 20an izango du lehen bisita ama eta aitarekin, espetxealdiaren hiru laurdenak beteak izanda aspaldi baldintzapean aske, Xuarekin batera egon behar zuten gurasoengandik urrunduta eta hilabetera.

Helbide berria

Espetxe aldaketarekin honatx Olatz eta Patxiaren helbide berria:

Centro Penitenciario Madrid VI
Carretera N-400, km. 28
28.300 Aranjuez (Madrid)
Olatz: “Módulo Madres”
Patxi: (oraindik ez dakigu, jakin bezain pronto jakinaraziko dizuegu).

Hurrengo ostiralean, elkarretaratzea

Euskal presoan eskubideen aldeko hileroko azken ostiraleko elkarretaratzea izango da otsailaren 28an. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
Patxi
barkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Haritz Arrizabalaga: “Zubietarren proposamenak entzun nahi ditugu”

Herri bilera egingo dute hurrengo astean Zubietan. Haritz Arrizabalaga alkateak azaldu digunez, “herritarrekin batera zehaztu nahi ditugu hurrengo urteetarako egitasmoak”.

NOAUA! Udaberrian osatu zen egungo Herri Batzarra. Nolakoa izan da lehen hilabete hauetako martxa?

Haritz Arrizabalaga: Samurra ez da izan. Gai hauetan ez dugu inolako eskarmenturik eta oraingoz ikasten ari gara. Ikasten eta eguneroko beharrei erantzuten. Batzarrean sartu ginenetik hona, martxan zeuden proiektuak kudeatzen jardun dugu. Azken uneko beharrei erantzuten aritu gara hilabeteotan. Orain, aurrera begira jarri eta lanean hasi nahi dugu.

Gainera, hautatuak izan zireten guztiak lehen aldiz ari zarete batzarkide lanetan, ezta?

Bilera batzuk egin genituen aurreko batzarkideekin eta asko lagundu digute, baina egunerokotasunean bakarrik gaude. Usurbil eta Donostiako Udalekin harremantzeko garaian ere berdina gabilza, ikasten.



Otsailaren 25erako bilera deitu du Zubietako Herri Batzarra. “Zubietarrek dituzten beharrak eguneratu, zerrendatu eta adostu” nahi dituzte. Hori izango da 18:30etatik aurrera Kaxkapen egingo duten bileraren helburuetako bat.

HARITZ ARRIZABALAGA

“Azken uneko beharrei erantzuten aritu gara hilabeteotan. Orain, aurrera begira jarri eta lanean hasi nahi dugu”

Usurbilgo Udalarekin akaso errazagoa da, udal txikia izanik harremanak gertukoak direlako. Donostian aldiz, burokrazia gehiago dago eta edozein mugimendu txiki egiteko ere, gehiago kostatzen da.

Hasi berri dugun urteari dagokionez, zeintzuk dira burutu nahiko zenituzketen egitasmoak?

Idea batzuk baditugu lehendik. 2017an, EMUNek partaidetza prozesu bat gidatu zuen Zubietako herritarrekin batera. Txosten horretatik ideia eta egitasmo batzuk erreperatu ditugu. Otsailaren 25eko bilera, hain zuzen, horretarako propio antolatutako dugu: Zubietaren inguruko diagnostia egiteko eta azken urteotan sortu diren beharrak

zeintzuk diren zerrendatzeko. Behin hori eginda, herritarrekin batera zehaztu nahi ditugu aurtengorako egitasmoak.

Udaletxeetan bezala, Herri Batzarrean ere lau urtekoak izaten dira legealdiak. 2019-2023 epean, zeintzuk izango dira erronka nagusienak? Hori ere datorren asteko bileran landuko al duzue?

Hori da gure asmoa. Datozen 3-4 urteei begira, zubietarrek dituzten beharrak zerrendatzea, eguneratzea eta adostea.

“Komunikazioa hobetzeko bideak adostu nahi ditugu”

NOAUA! Etorbizuneko Zubietaz hitz egiteko herri bilera iragarri duzue. Otsailaren 25ean astearte, arratsaldeko 18:30ean Kaxkapen.

Haritz Arrizabalaga: Elkar eza-gutu nahi dugu. Hori ere bada datorren asteko bileraren helburu garrantzitsu bat. Herri Batzarren eta zubietarren artean egon litekeen distantzia ahalik eta gehien murriztu nahi dugu. Komunikazioa hobetu eta arintzeko bideak

adostu nahi ditugu.

Bilera partehartzailea izangoenez, hurbilduko direnek pentsa dezatela Zubietaren etorkizunerako zer nahi duten. Guk gure asmoak zeintzuk diren aipatuko ditugu. Dena den, zubietarren proposamenak entzun nahi ditugu. Legealdiko erronka nagusiak denon artean zerrendatu nahi ditugu. Behin hori eginda, 2020rako premiak eta lehentasunak zehaztuko ditugu.



Iazko udaberrian hautatuak izan ziren kide guztiak lehen aldiz ari dira Zubietako Herri Batzarrean lanean.

Dantzalekua mozorrotuentzako prest

Usurbil dantzaleku erraldoian bilakatzen dugu. Dantza izango dugu asteburuko Inauteri Festarako aitzakia. Ikastetxeek egingo diote aurrez harrera mozorro festari.

Inauteri Festa

Otsailak 21, ostirala

- 19:15 Luzaideko konpartsa-ren kalejira herrian barrena.
- 20:15 Luzaideko Bolantak frontoian.

Otsailak 22, larunbata:

Inauteri Festa Usurbilen

- 12:00 Familia plana Zirimarako kideekin, Mikel Laboa plazan.
- 12:30 Kalejira Gaztelekuko herensugearekin, Burrenbazale txarangarekin. Azken dantza frontoian.
- 16:00 Karaoke festa eta bingoa Gaztelekuan.
- 18:00 Dj ibiltaria Aztarrikaren karrozarekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.



Pasa den larunbateko Euskal Inauteria Zubietatik abiatu zen. Trikitixa doinuak lagun, txantxoak kalejiran iritsi ziren Hipodromoko zubiraino. Han Lasarte-Oriako dantzariak batu zitzaizkien. Jai-giroa Lasarten barrena zabaldu eta gero, senidetze-ekitaldia ospatu zuten Okendo plazan. Suaren dantzan, Kaxkamalo xomorroa erraustu zuten.

- 20:00 Aztarrikaren eskutik performantzea frontoian.
- 00:00 Dantza festa Iñorkin

eta Kilimak taldeekin. Elkarlanean: NOAUA! K.E., Usurbilgo Udala, Orbeldi D.T.,

Zirimara taldea, Usurbilgo Gaztelekua eta Aztarrika Gazte Asanblada.

Inauteriak ikastetxeetan

Otsailak 21, ostirala

Aginagako Eskola

- 15:00 Txaranga osatu eta kalejira egingo dute Aginagan barrena. Geldialdietan, dantza eta kantu saioak.

Zubietako Eskola

- 15:30 Zubietako Eskolako inauterietako kalejira. Ibilbidea: Eskola, Alamandegi, Barazar eta plaza eguraldi onarekin. Eurria bada, frontoian.

Udarregi Ikastola

- 10:15 HHkoen festa Usurbilgo frontoian. Giro euritsua bada, Oiardo Kiroldegian.
- 11:00 LHko ikasleen desfilea herrian barrena. Bi ibilbide osatuko dituzte:



Ostiral honetan, goiz partean hasiko dira kalejirak eta ikuskizunak Udarregi ikastolan.

-Udarregi Ikastola, Atxegalde, Usurbilgo Udala, Kale Nagusia, Errekatziki kalea, Puntapax kalea, Bordatxoko biribilgunea eta Oiardo Kiroldegia.

-Udarregi Ikastola, Bordatxoko errotonda, Bordaberri kalea, Aliproxeko biribilgunea, Kalezar, Puntapax kalea, Bordatxoko biribilgunea eta

Oiardo Kiroldegia.

- 11:45 DBHko ikasleen ikuskizuna Kiroldegian. LHko ikasle moduan bertan izango dira.
- 15:30 LHko ikasleen "Gure esku ez dauden gauzak" ikuskizuna Kiroldegian.

Oharrak:

- Kiroldegirako sarbidea futbol zelai aldeko atletik izango da. Ikuskizuna baino 20 minutu lehenago irekiko da atea.
- Kiroldegiko ikuskizunerako ikasle bakoitzak sarrera bat izango du etxera eramateko. Horrez gain, Kiroldegiko sarreraren txartelak banatuko dira emanaldia ikustera sartu nahi dutenentzat.

Gidabaimena ateratzeko euskara hautatzen duten ikasleen kopuruak goruntz egin du

Iaz eskualdean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera zuten herritarren artean matrikulazio gastuei aurre egiteko 9 ordainsari zozketatu zituzten otsailaren 14an Hernanin, sektore hau euskalduntzeko Buruntzaldeko udalek eta autoeskolek duela 10 urtetik abian duten egitasmoaren baitan.

2010az geroztik 1.027 herritarrek bat egin dute kanpaina honekin. 34 lagunek lehen urtean, 2018an 110ek, iaz %14 gehiagok, 124 herritarrek. Hamarkada honetan zehar, gorabeherak izan diren arren, nabaria da sektore honetako jarduna euskalduntzeko ekimenaren parte hartzean izandako goranzko joera.

Maiatzean emango diote segida kanpainari

Egitasmoa babesten eta sustatzen jarraitzeko konpromiso irmoa dute guztiek. Maiatzean emango diote segida kanpaina honi. 18 urte bete dituzten eskualdeko gazteei gidabaimena euskaraz ateratzera gonbidatzeko gutun bana helaraziko diete Buruntzaldeko udalek. “Esparru honetan ere, euska-



Maiatzean emango diote segida kanpaina honi. 18 urte bete dituzten eskualdeko gazteei gidabaimena euskaraz ateratzera gonbidatzeko gutun bana helaraziko diete Buruntzaldeko udalek.

GIDABAIMENA EUSKARAZ

**2010az geroztik,
Buruntzaldeko 1.027
herritarrek bat egin dute
kanpaina honekin**

ra erabil dezaten” animatu nahi dituzte herritarrek.

Ez baita ahaztu behar, egun D erudian, euskara hutsean ikasteko aukera dute Buruntzaldeko gazteek, eskolaz kanpoko ekintza hainbat ere hizkuntza berean egiteko aukera. 18 urte bete eta gidabaimena hizkuntza berean atera ahal izatea ere ezinbestekotzat jotzen dute egitasmo honetan parte hartzen ari di-

ren udalek eta autoeskolek.

Teorikoarena, praktikaldira

Etorkizuneko erronketako batek urteotakoa izaten segitzen du; atal teorikoarekin lortu dutena, praktikaldira hedatzea. Ikasleek gidabaimenaren atal praktikoa ere euskaraz prestatu eta gainditu ahal izatea alegia.

Euskara hautatzeagatik sarituak

Iaz gidabaimenaren atal teorikoa Buruntzaldeko autoeskoletan euskaraz prestatu eta gainditu zuten Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herritarren artean, egitasmo honetan parte hartzen ari diren autoeskolak adina ordainsari zozketatu zituzten otsailaren 14an Hernanin; guztira 9. 9 sari, atal teorikoak ikasle sarituei eragin dizkien gastuak

ordaintzeko, 400 euroko mugarekin.

Autoeskola adina sari

Udalerrri bakoitzean dagoen autoeskola adina sari banatzen dituzte. Eskertzeko modu bat da honakoa, eremu honetan ere euskara hautatzeagatik. Buruntzaldeko udalek hain zuzen, eskerrak helarazi nahi dizkiete egitasmo hau abiarazi eta urte guztiotan sustapen lan

hau egiten aritu diren udal, autoeskola eta herritarrei. Denen artean, datozenentzat “bidea ireki dute” eta.

Egitasmoan parte hartzen ari diren autoeskolak honako hauek dira: Andoaingo Bengoetxea eta Mendi, Astigarragako Otamendi, Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi, Lasarte-Oriako Mugika eta Urnieta zein Usurbilgo Solozabal.

Imanol Furundarena, sarituen artean

Urteroko zozketa honetan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa zen Buruntzaldeko udalerriren batean errolatua egotea, eta aipatu moduan, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatu eta gainditu izana 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31rako tarte horretan. Imanol Furundarena Maiz izan da Usurbilgo saritua. Zorionak!

Usurbil Futbol Taldea,



Argazkian Usurbil FTren jokalarik, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideak, denak elkarrekin.



Futbol Eskola 2008.



Futbol Eskola 2009.



Futbol Eskola 2010.



Futbol Eskola 2011.

2019-2020 denboraldia



Erregional mailako taldea.



Jubenil mailako taldea.



Infantilak, mutilak B.



Infantilak, mutilak A.



Infantilak, neskek.



Kadeteak, neskek.

Zaldibarko zabortegiko hondamendiaren aurrean, erraustegia berehala geldiarazteko eskaera

Zaldibarko zabortegia-
ren hondamendiaren
aurrean, Zubietako
erraustegia berehala geratzea
exijitu du egunotan Erraus-
tegiaren Aurkako Mugimen-
duak. “Oraintxe bertan proiektu-
a geratzea exijitzen dugu”,
adierazi du sare sozialen bidez.

Osasun munduko profesio-
nalen aholkuak aintzakotzat
hartzea eskatzen dute. “Medi-
kuek beti aholkatzen duten
prekautzio printzipioa exijitzen
dugu. Ez da onargarria airea
gehiago kutsatuko duen azpie-
gitura berri bat irekitzea”, go-
gorarazi dute. Ahaldun Nagusi
Markel Olanori gogorarazi dio-
tenez, “hau ez da bidea. Altern-
tibak badaude”.

Egia osoa eta arduradunen berehalako dimisio eskaera

“Marra gorri guztiak gaintitu
dituzte”, salatu du Errauste-
giaren Aurkako Mugimendak
sare sozialen bidez. Kezka
handiz eta haserre hartu
ditu aipatu herri mugimen-
duak otsailaren 14an Eusko
Jaurlaritzaren Osasun Sailak
kaleraturiko CSIC-en laginen
emaitzak. “Eibar, Ermua, Zal-
dibar eta ingurueta dioxina
eta furano mailak onartutakoa
baino 40-50 aldiz handiagoak
direla azaldu du Jaurlaritzak”,
Erraustegiaren Aurkako Mugi-
menduaren esanetan. Baina ez
da aski. “Jaurlaritzari exijitzen
diogu egin dituen ikerketen
emaitza osoak eta datu guztiak
gardentasunez publiko egitera



Zaldibarko luiziko kaltetuei elkartasuna adierazi zieten otsailaren 12an Mikel Laboa plazan.

OSASUNA, ARRISKUAN
**“Halako momentuetan
egia osoa jakiteko
eskubidea dugu”.**
**Erraustegiaren Aurkako
Mugimenduak
onartezintzat jo du,
“urteetako kudeaketa
ustelaren ondorioz, gutxi
batzuen negozioagatik,
herritarren osasuna
arriskuan jartzea”**

berehala. Halako momentue-
tan egia osoa jakiteko eskubi-
dea dugu”, nabarmendu dute.
Onartezintzat jo dute, “urtee-

tako kudeaketa ustelaren ondo-
rioz, gutxi batzuen negozioa-
gatik, herritarren osasuna
arriskuan jartzea”. Testuinguru
honetan, Eusko Jaurlaritzaren
Ingurumen Saileko arduradu-
nen berehalako dimisioa eska-
tu dute; sailburu Iñaki Arrio-
larena eta Sailburuorde Elena
Morenoren.

“Ez zaudete bakarrik”

Elkartasuna adierazi diete
Zaldibarko zabortegiak kal-
tetutako herritarrei. “Ez zau-
dete bakarrik”, adierazi die
Erraustegiaren Aurkako Mugi-
menduak. Elkartasun mezu
berezia helarazi diete desager-
tuak segitzen duten langileen
hurbilekoei. “Besarkada erral-

doia Joaquin eta Albertoren
senideei, baita ingurueta
herritar guztiei ere. Ez etsi, ira-
baziko dugu”.

“Zaldibar, argitu orain!”
aldarriean joan den larun-
batean zabortegi inguruko
herrietan eginiko mobilizazio
jendetsuarekin bat egin zuen
Erraustegiaren Aurkako Mugi-
menduak eta mugimendu hau,
eragile sindikal, sozial eta sin-
dikalekin batera osatzen duten
Larreko Mahaia.

Aipatu bilguneak Zaldibarko
zabortegian jazotakoa “larrial-
di ekologikoan beste pauso bat
bezala ulertzen du, agintariak
eta kapitalismoak bultzatuta
sortutako zabor kopuru izuga-
rriaren ondorio zuzena”.

“Zaldibar argitu, erraustegia gelditu!” goiburuarekin bat

Zaldibarko zabortegiko hon-
damendia kaltetzen ari di-
renei elkartasuna adierazi
zieten otsailaren 12an Mikel
Laboa plazan, bertan egiten

ari diren hondakinen ku-
deaketa modu oso eskasa sa-
latzearekin batera. Argazkian
duzue elkarretaratzearen iru-
dia. Zubietako erraustegia eta

inguruok ere ataka berdinean
aurkitzen direla ohartarazi
zen. Erraustegiaren Aurkako
Mugimenduak Gipuzkoako
hainbat udalerrietan deitu-

tako elkarreratzeetako bat
izan zen Usurbilgoa. Zubie-
tan ere egin zuten. Baita, La-
sarten, Hernanin, Andoainen,
Donostian...

Bizitzak erdigunean jarriko dituen ereduaren alde

Martxoan zehar piztu dezaketen Zubietako erraustegiari ongi etorririk ez ziola egingo iragarria zuen Ernai gazte antolakundeak ostiral iluntzerako antolatu zuen ekimenean. “11 arrazoi ditugulako eta frogatu direlako, gaur inoiz baino bi-ziago oihukatu beharrean gaudе; errausketarik ez! Ez Zubietan, ez inon! Beste bizi eredu bat posible delako”.

Sardin jana eskaini zuten zubietar talde batek Mikel Laboa plazan, eta segidan, herri erdigunea zeharkatu zuen kalejira aldarrikatzaile baten baitan, “PNV. Ustelen legea, errautsa eta kea” goiburua zuen pankarta eseki zuen Ernaik, jeltzaleek Oxtape inguruan duten batzokiaren atarian.



“PNV. Ustelen legea, errautsa eta kea” goiburua zuen pankarta ipini zuen Ernaik, jeltzaleek Oxtape inguruan duten batzokiaren atarian.

ERNAI

Otsailaren 27rako mobilizazio eguna deitu du

Interes pribatuen alde, gizartearen aurka

Otsailaren 27rako mobilizazio eguna deitu du Ernaik, “ustelkeria eta interes pribatuen aurrean, bizitzak erdigunean jarriko dituen ereduaren alde egingo dugula garbi erakutsiz”. Mobilizazio egun honen bi-

dez, erraustegia “egungo sistema kapitalista heteropatriarkalaren ikonoa” dela nabarmendu nahi dute, etekin ekonomikoa herritarren bizitzan gainetik jartzan dutela salatzen du Ernaik. Egitasmo honen atzean dauden, “milioi askoko tratuarekin batera”. Gazte antolakundearen esanetan, “berriro ere poltsikoak diru ustelez beteko dituzte erraustegia beharrezkoa dela diotenen, nahiz eta ongi dakiten gizartearen kalterako proiektuak direla”.

Herritarren hitza alboratu eta interes pribatuak lehenestea, hori da Ernairen esanetan, “EAJ-k eta PSE-k Gipuzkoa eta Euskal Herri-rako nahi duten eredu”.

Klima larrialdi egoeran egonik, “are eta ulergaitzagoa”

Azken hamarkadan herri mugimenduak sustatuta, milaka herritarrek erraustegia gertzeko eginiko eskakizunaren ildotik, egun pil-pilean den klima larrialdiaren gaiaren aurrean “are eta ulergaitzagoa da proiektu hau irekitzeko urratsa ematea”.

Adibide gisa aipatzen du Ernaik, azken egunotan Zaldibarko zabortegiko hondamendiarekin gertatzen ari dena. “Krisi ekologikoaren aurrean, agintariak kapitalismo berdearekin erantzuten dute, haien aurpegia garbitu nahian, inolako aldaketarik suposatzen ez duten azaleko adierazpenak eginez eta hazkunde ekonomiko eta negozioarako aukera berriak irekiz”.

EAJ-k “eraso faxista eta mafioso” salatu du

Ernaik ostiral iluntzean burutu zuen ekimenari prentsa-ohar bidez erantzun dio Usurbilgo EAJ-k: “Azken asteburuan Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat batzokiek batera pairatu dugun eraso faxista eta mafioso salatu nahi dugu. Eraso horiek, argi eta garbi, Zaldibarko zabortegian erregistratu zen ezbehar tragikoaren ondoren euskal gizartearen ezagun diren eragile politikoek buruzagi jeltzaleen eta alderdikideen kontra abian jarri duten jazarpen-kanpainaren barruan egin dira”.

EAJ-PNVk, bide batez, deitoratu nahi du “obra-hondakinen azpian oraindik jarraitzen duten langileen senide eta lagunentzat horren mingarri eta dramatiko gertatzen den egoerarekin eragile politiko batzuk



Zaldibarren gertatutakoaren aurrean, EAJ-PNVk deitoratu nahi du “eragile politiko batzuk egiten ari diren erabilpen doilor eta okerra”. Argazkia: EAJ.

egiten ari diren erabilpen doilor eta okerra”.

Kartelak, zaborra eta gorotzak batzokietako sarbideetan

Usurbilgoa ez da kasu bakarra izan. Antigua, Al-tza, Sabindarrak, Algorta, Sopela, Ugao, Galdakao, Zalla, Mungia, Elorrio eta Basauriko batzokiak ere erasotu dituz-

tela salatu du EAJ alderdiak: “Antzeko patroia jarraitu dute guztietan. Ezezagunek jeltzaleen egoitzetako fatxadetan hainbat kartel jarri dituzte EAJ-PNVko agintariak eta alderdikide guztiak irainduz eta mehatxatuz. Halaber, zenbait batzokietako sarbideetan zabor poltsak eta gorotzak bota dituzte”.

Presazkoena, langileak aurkitzea

EAJ-k administrazioei eskatzen die hondakinen azpian dauden langile biak aurkitzeko lanean jarrai dezatela, “hori delako une honetan lanik premiazkoena eta presazkoena. Eta behar besteko neurriak hartzen jarrai dezatela langileak lokalizatzeke lan horietan parte hartzen duten profesionalen bizia babesteko eta inguruan bizi diren pertsonen osasuna zaintzeko”.

“Enpresak erantzukizun guztiak argitu ditzala”

Era berean, zabortegiaren jabe den enpresari EAJ-k exijitzen dio “lankidetzara, informazioa eta gardentasuna eskaini ditzala zabortegian gertatu den luiziaren zioak eta gertakari horren inguruko erantzukizun guztiak argitzeko”.

Erraustegiaren ingurumen baimena aztertu zuen CSICen datuek areagotu dute kezka

Zaldibarko zaborteziaren eta Zubietako erraustegiaren artean lotune bat baino gehiago aurki ditzakegu egunotan. Azkena, CSIC-ek (Consejo Superior de Investigaciones Científicas delakoa) zabortezi inguruetan hartutako laginen inguruan eginiko azterlanaren emaitzak ditugu. Dioxina eta furano kopurua- ren igoeraz ohartarazi dute. Gogoan izan, hondamendia gertatu eta gutxira, oraindik argitzeke dauden suteak piztu ziren zabortezi bertan eta azken astebetean, etengabe arnastu behar izan dute inguruetan suteon kea.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak zenbait “prebentzio neurri” hartzea aholkatu zien herritarrei: etxeko leihoak itxi



CSICek Zubietako erraustegiaren inguruko azterlana egin zuen 2018an. Ingurumen Baimen Bateratuak ez zuela osasuna bermatzen ondorioztatu zuen.

eta aire librea kirol jarduerarik ez egitea. Pentsa, Eibarren etxekoek Realaren aurka jokatzea zuten partida bertan behera utzi zuten asteburuan.

Emisioak mugatzea

CSIC ezaguna zaigu inguruotan, Zubietako erraustegiaren inguruko azterlana ere egin

baitzuen; “errausketa prozesuek herritarren osasunarentzat kaltegarriak izango diren substantzia toxikoak eragingo dituzten eta isurketa hauetarako emisio mailak finkatu diren edo ez frogatzea” helburu zuena hain zuzen. GuraSOSek abiatutako Hitzartu prozesuaren testuinguruan plazaratu

zituena emaitza nagusiak duela bi urte. 2018ko martxoa hasieran jaso genuenez, ikerlanak Zubietako erraustegiari emandako Jaurlaritzaren Ingurumen Baimen Bateratuak herritarren osasuna ez zuela bermatzen ondorioztatu zuen, “atmosfera- ra isurtzen diren substantzi- ekin kontrol eta mugarik ez baitu ezartzen. Inguruan barreiatuko dira, landaretan, lurzoruan eta uretan”. Emisioak mugatu behar direla ohartarazten zuen txostenak, baimendutako emisioen baitan ere metatu egiten baitira, eta osasunean eragiten baitute. “Dioxinek eta edota furanoek esaterako”, substantzia hauekiko etengabeko esposizioak minbizi arriskua izateko aukerak gehitzen dituela ohartarazten zuen, erraustegien inguruan bizi direnen artean.

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe

LENE KANTAK

SATORTATOR

LURRAREN BIHOTZERA BIDAIA

2 sarrera
zozketatuko ditugu
otsailaren 21ean

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / eukartea@noaua.eus




Ugaitz Agirre Zapirain

Zu Gregor Samsa zara, goiz batez amets arrarotik esnatuta zomorro nazkagarri bat zarelakoan. Fikzioak gainditu du errealtatea konturatu zarenean balantzaka zabiltzala oskolaren gainean, eta laguntza eskarriak sei hanka iletsu airean mugitzean egikaritzen dira. Ahotik, hala dei badaiteke duzun matraila, soinu arraroak besterik ez zaizkizu ateratzen likido likitsuaz gain.

Arrebak alboko gelatik ondo zauden galdetu dizu, ama kezkatuta baitago ez zarelako lehenengo tren hartzeko garaiz esnatu. Zu ez zara horrelakoa. Atea kolpatu dute, baina balantzaka jarraitzen duzu oskolaren gainean sei hanka iletsuak astinduz. Oraindik eta indar handiagoz kolpatu du oraingoan amak gehituz ea ateratzeko asmorik duzun. Beste kolpe bat eta atea botako duela pentsatu duzu; eta hori ez, ezin du horrelakorik gertatu. Ezin zaitu zauden egoeran aurkitu. Balantza probestuz, inertziatz, lurrera jauzi zara hanken gainean. Zorteko. Ahal bezain azkar atera hurbildu eta eutsi duzu. -Gregor! Zer zabilta? Trena abiatzekotan da— dio amak.

Erantzuten saiatu arren, soinu arraroak bestetik ez zaizkizu ateratzen. Uste baino gehiago kostatu zaizu,

ZO-MO-RRO-ZO-MO-RRO



"Erantzuten saiatu arren, soinu arraroak bestetik ez zaizkizu ateratzen".

UGAITZ AGIRRE

"Arrebak alboko gelatik ondo zauden galdetu dizu, ama kezkatuta baitago ez zarelako lehenengo tren hartzeko garaiz esnatu. Zu ez zara horrelakoa"

baina lortu duzu i-txoin edo gisako zerbait esatea.

-Jantzen dago ama —beste gelatik arrebak—, hurrengo tren hartuko du.

Arrebak zuk asmatu ezin dituzun aitzakiak bilatzen dizkizu, eta zuregatik ari da gezurretan. Ez ote du uste onegia zuzan?

Ordu erdi pasa da eta etxean ezinegona handitzen doa. Horren erruduna zu zara, eta hori ondotoxoa dakizu. Aita, pazientzia handikoa normalean, one-

tik aterata dago. Egunkariarekin zure gelako atea kolpatzen minutuak pasa ditu, eta bere ezinegona egunkariak edo zuk eragin duzun pentsatzen egon zara ateari hala moduz eusten jarraitzen duzun bitartean. Kolpatzeaz aspertu denean, zauden egoerara nola demonio ailegatu zaren pentsatzen jardun zara, nahiz eta premisa garatzeko gaitasunik ez duzun izan.

Atea bakean utzi dutela ondorioztatu, ispilura hurbiltzen saiatu zara, hala zertan bihurtu zaren begi propioekin ikusteko. Lehen begiratuaren txoka nahikoa izan da —garrasi esperpentikoz lagunduta— zure itxuraz izutzeko.

-Gregor, zer izan da hori? Zabaldu iezadazu atea mesedez —orain arreba. Baina nola zabalduko diozu arrebari horrelako itxura izanda? Zomorro nazkagarri bat zara, mesedez! Burutik ere ezin zaizu pasa

horrelako erabakirik. Garunak pentsamendu arrazional guztiei betoa jartzen die ideia fluxua eteteagatik bakarrik. -Ez-z-in-e-ez-i-i-n-du-u-t-du-t-t —erantzun propioak zuk zeuk ere ez dituzu ulertzen. Arrebak temati jarraitzen du. Duzun ezintasunaren berri ematen saiatu zara behin eta berriz; ez dirudi, ordea, zure mezurik iristen den bere beharrietara.

Hain sentitzen zara zabor, hain izaki suntsi beharrekoa, hain oztopo modernitatearen kaleetan dabilzan ibiltarienezako. Barkamenak eskatzera kondenatua izango bazina bezala bizi zaren artean.

Arrebari atea zabaltzea erabaki duzu azkenerako, oso ondo jakin gabe zergatik egiten duzun ere.

-A! —oihu egin du ate bazterrean ikusi zaituenean—. Munstro bat!

Amaren eta aitaren pauso azkarrak hurbiltzen nabari dituzu. Buruak oraindik eta bira gehiago ematen dizkizu kolpeen erresonantzia medio. Ukabilkada bat nahikoa izan da atea guztiz zabaltzeko. Beldurrak jota, leihoraino iritsi zara jakin gabe nola. Aita, ama eta arreba zuri begira. Inguratua sentitzen zara.

-Zertan ari zara, Gregor? Oraindik mozorroa erantziz gabe? Zenbat garagardo erori ziren atzo?

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
IT-ak egiten dira
649 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraltz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraltz@uraltz.com USURBIL

Bertso-afaria Aginagan

Antxomolantxa Aginagako Herri eta Kultur Elkartek bertso-afaria antolatu du otsailaren 29an Aginaga Sagardotegian. Puntapuntako hiru bertsolari gonbidatu dituzte hitzordura: Oihana Iguaran (Amasa-Villabona, 1991), Sebastian Lizaso (Azpeitia, 1958) eta Andoni Egaña (Zarautz, 1961). Bertso-afaritarako txartelak salgai dituzue jada 30 eurotan Aginaga Sagardotegian bertan edota Arraten.



Bertso-afaritarako txartelak salgai dituzue jada 30 eurotan Aginaga Sagardotegian bertan edota Arraten.

Otsailak 29, larunbata

- 20:00 Trikipoteoa Arrate tabernatik.
- 21:00 Bertso-afaria Oihana Iguaran, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin. Menua: bakailu tortila, txuleta eta en-

tsalada, gazta eta menbriloa, kafea eta kopa, txotxa barne.

- Ondoren, erromeria: Ostolaza eta Lutxurdio.

Sarrerak: 30 eurotan salgai aurrez Aginaga Sagardotegian eta

Arrate tabernan.

Antolatzailea: Antxomolantxa Aginagako Herri eta Kultur Elkartea.

Laguntzailea: Aginaga Sagardotegia.

'Jenisjoplin', irakurketa-solasaldirako liburua eskuragarri

Ikuspegi feministatik aztertuko dute Kattalin Miner kazetari eta idazlearekin, Uxue Alberdiren "Jenisjoplin" sortze lana, Sutegi udal liburutegiak eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak martxoaren 11rako 19:00etan liburutegian bertan antolatu duten euskarazko irakurketa-solasaldian. Liburua eskuragarri duzue jada Sutegin. "Aipatu liburua liburutegian eskuratu ahal izango duzu; izan ere, liburua alde aurretik irakurritz gero, etekin handiagoa aterako diozu topaketari. Anima zaitetz parte hartzera!".

Probaldi fasean, baina martxan



Otsailaren 17an Zubietako erraustegiak zuen itxura duzue ondoko irudiotan.

Beste behin, otsailaren 17an Zubietako erraustegiak zuen itxura duzue ondoko irudiotan.

Goiz lainotsu eta euritsua izan arren, lainoek ezin izan zuten ezkutatu erraustegiari zerion

ke zutabe handia. Probaldi fasean dute ofizialki, baina bistan denez martxan.

Deialdiak

Otsailak 22, larunbata

- 18:00 Inauteri Festako karrozari segika, gazteok Aztarrika! Dj ibiltaria, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 20:00 Aztarrikaren eskutik performanzea frontoian. Antolatzailea: Aztarrika.

Otsailak 27, osteguna

- 11:00 Ikasleen mobilizazioa Donostiako Gipuzkoa plazatik.
- 19:00 Gazte mobilizazioa Lasarte-Oriako Okendo plazatik. Antolatzailea: Ernai.

Otsailak 29, larunbata

- 17:00 "Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!" manifestazioa Donostiako Easo plazatik. Antolatzailea: Larreko Mahaia.

Martxoaren amaieran

Erraustegia "ofizialki" piztu dezakete hilabete amaieran.

Ia 100 ontzi, Oriako Jaitsieran izena emanda

Erria arraun munduko proba entzutetsuaren jokalekuan bilakatuko da larunbat honetan bertan, otsailaren 22an. Inauterien asteburuarekin egokitu da aurten goan, 26. ediziora heldu den Oriaren Traineru Jaitsiera. Aginaga eta Ori lotzen ditu kirol proba honek. Bi modalitateetan jokatzen da. Batetik, 4.000 metroko saioa jokatuko dute Saikola eta Ori artean talde batzuek, besteek, 6.000 metrokoa Mapil eta Ori artean. Emakumezkoen seigarren eta gizonezkoen bederatzigarren ikurriña izango da jokoan.

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da jaitsiera. Antolakuntzak berri eman duenez, joan den larunbatean itxi zuten proba honetan izen emateko epea. Bezperetan jada 84 ontziek emana zuten izena. "Mila arraunlaritik gora" espero dituzte larunbat arratsalde honetan bertan, Oriako uretan.

"Proba honen helburu na-



"Mila arraunlaritik gora" espero dituzte larunbat arratsalde honetan bertan, Oriako uretan.

DENBORALDI HASIERAN

"Proba honen helburu nagusia neguko prestaketak lantzen ari diren arraunlarien progresioa testatzea da"

gusia neguko prestaketak lantzen ari diren arraunlari eta elkarteek progresioa testatzeko aukera izatea da". Parte hartze ahalik eta inklusiboena izatea, "guztiek parte hartzea

da helburua: gizonezkoak eta emakumezkoak, elkarte federatuak, traineru mistoak eta lagun artekoak, jubenetatik hasita beteranoetaraino".

Kategoria ezberdinak

Iaz Llagut-ak, jubenilak, beteranoak, emakumezko nahiz gizonezko absolutuen gizonezkoen mailako probak jokatu ziren. Euskal Herriko taldeak nagusitu ziren arren, aipatzekoak dira urtero Mediterraneo aldetik etorritako "Llagut-ak" ere.

Itzulia eta "La Vuelta", Usurbildik

Erreterian hasi eta Sestaon amaituko den Euskal Herriko 60. Itzulia txirindularitza probaren 180 kilometroko bosgarren etapak Donostia aldetik sartu eta Usurbil eta Aginaga zeharkatuko du N-634 errepidetik barrena, apirilaren 10ean. Apirilaren 6tik

11ra ospatuko da Itzulia, antolakuntzak egunotan iragarri duenez. Informazio gehiagorako: itzulia.eus

Abuztuaren 18an, "La Vuelta"

Gogoan izan bestalde, Espainiako 75. "La Vuelta" txirrin-

dularitza proba ere Usurbildik igaroko dela. Abuztuaren 18an izango da, Irunen hasi eta Arrate gainean amaituko den 169,5 kilometroko laugarren etapan. Ibilbideko 26. kilometroa izango da udalerrri hau. Informazio gehiagorako: lavuelta.es

Inauteri Festarako familia plana

Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala eta NOAUA! Kultur Elkartea sustatzaile nagusi dituen Zirimara egitasmoko kideen proposamena hautatu da larunbateko Inauteri Festarako; alegia dantza izatea moztzeko gaia. Baina ekarpen gehiago ere egin du; kirola, aisia, eta guraso zein seme-alabak batuko dituen familia plan berria antolatu dute otsailaren 22rako.

Gaztelekuko kideek kaleratuko duten herensugearekin kalejiran ibiltzeko gonbita luzatzen dute, Burrunbazale txarangaren erritmora. Lehenago jolasak egitekoak dira Mikel Laboa plazan. Eta goiza borobiltzeko, dantza saioa iragarri dute guztiek batera frontoian. Guraso eta seme-alaba ororentzako deialdi irekia da Zirimarako familia plana. Hemen egitaraua:

Otsailak 22, larunbata

- 11:30 Egunaren hasiera txarangarekin.
- 12:00 Zirimara jolasak Mikel Laboa plazan.
- 12:30 Kalejira Gaztelekuko herensugearekin eta Burrunbazale txarangarekin.
- 13:00 Dantza frontoian Orbeli Dantza Taldearekin.

Gipuzkoako

Trinkete txapelketa

Otsailak 23, igandea

Gipuzkoako Txapelketa

Eskuz binaka, Nagusiak 1. maila: Iruran, 10:30ean

Behar Zana 2-Pagazpe

txirriStra

TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai; 2 logela, egongela, sukalde handia, 2 balkoi, dena kanpo aldera begira. Komuna duela gutxi berritua. 56m². Lokala 22m², garaje bezala eta sapai txiki bat trastelektzat. Interesatuak 675 007 422.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa ne-

goziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntu kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiribogan asteburuarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara:

607110365.

Finantza eta aseguruetakordeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen arida. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, interna edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrek zaintzeko edo garbiketarako lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitezke. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. T689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketarako lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza

baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketarako edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketarako, orduka edo lanaldi osoz aritzeko. 633148710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketarako edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketarako edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketarako, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldaterekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketarako. Berehalan lanean hasiko nintzateke. 603 818 142



Urteaskuan, Janitz!

Otsailaren 25ean, 13 urte!
Muxu potoloak eta goxoak
famiakoen partez.
Maite zaitugu!!!

Heriotzak

Benita Etxeberria
Etxaniz

Otsailaren 14an
hil zen, 73 urterekin



Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Espe-

rientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest.

11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta

langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarin Japoiarrak (txoriak) ditut salgai. T659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udal zerbizua (Brigada).....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	Eusko Tren.....	943 470 976
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	LurraldeBus.....	943 000 117
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Anbulategia.....	943 362 013
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Haur Eskola.....	943 374 061	Iturralde botika.....	943 363 395
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	DYA.....	943 464 622
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Emergentziak.....	112
KZgunea.....	943 023 684	Genero-indarkeria, arretoa.....	900 840 111 / 016
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Kutxabank.....	943 361 202
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	Banco Popular Español.....	943 370 411
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	BBVA.....	943 377 155
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Telefonica.....	1004
		Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 20 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 22 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 23 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 24 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Otsailak 20 - Martxoak 01

Osteguna 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 29 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 01 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda otsaila

21 ostirala

- **Herriko argazkilarien erakusketa.** Ibai Arrietaren ikasleen argazkiak, otsailaren 23ra arte Sutegiko erakusketa aretoan ikusgai.
- **Inauteri festa ikastetxeetan.** Ikus 12. orrialdea.

22 larunbata

- **Herriko argazkilarien erakusketa.** Ibai Arrietaren ikasleen argazkiak, otsailaren 23ra arte Sutegiko erakusketa aretoan ikusgai.
- **Inauteri festa ikastetxeetan.** Ikus 12. or.
- **Oriako XXVI. Traineru jaitsiera.** 16:00etan Aginagan.

23 igandea

- **Herriko argazkilarien erakusketa.** Ibai Arrietaren ikasleen argazkiak, otsailaren 23ra arte Sutegiko erakusketa aretoan ikusgai.

Ligoteo sanoa identifikatzeko tailer mistoa

Ligoteo sanoa identifikatzeko tailer mistoa antolatu dute Kafe Tertuliak eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak ostiralean, otsailaren 21ean, gaueko 22:00etan Potxoenean.

Iaz bezala, aurtengo saioa ere tratu onak sustatu, eta parekidetasuna eta sexologia alorrak lantzen dituen Arremantitz Kooperatibak eskainiko du. Izena aurrez eman beharra zegoen, Kafe Tertuliaren Instagrameko kontura idatzita.



Ostiral honetan, gaueko 22:00etatik aurrera Potxoenean.

Bilera irekia, Zubietako Herri Batzarrak deituta

Herri Batzarreko kideek bilera batera deitu dituzte zubietarrak. Aurtengorako nahiz legealdi osorako egitasmoak zehaztu nahi dituzte. Beraz, ekarpenak jasotzeko ere balioko du otsailaren 25erako iragarri duten hitzorduak.

Otsailaren 25ean asteartea

- Arratsaldeko 18:30ean.
- Zubietako Kaxkapen.
- Antolatzailea: Zubietako herri Batzarra.

“Kontuz ama naiz!” kartelak salgai

GuraSOSeK abiarazitako kanpainaren baitan parte hartzen ari den ama taldea, ekimena iragartzen duten kartelak saltzen hasi da asteburuetan.

Ostiraletan

Arratsaldeko 18:00-20:00 artean, frontoi inguruan jarriko duten postuan.

Igandetan

Eguerdiko 12:00-14:00 artean, frontoi inguruan jarriko duten postuan.

Datozenak

Neguko zine zikloaren amaiera

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkar-tearekin batera negu parterako antolatuturiko euskarazko zine zikloaren azken proiektzioa iragarri dute martxoaren lehenerako; “Mr Link: jatorri galdua” izeneko filma, ohi bezala, 17:00etan Sutegin. Sarrerak egunean bertan 3 eurotan eskuratu ahalko dira.



“Mr Link: jatorri galdua” izeneko filma eskainiko dute martxoaren 1ean.

Datorren astean, kantu zaletuak plazara

Kantu zaletuen hitzordua bueltan dugu. Santa Ageda bezperako itzulieren ondotik, ohiko kantu-jira otsailaren 29an eguerdiko 12:30etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta. Gogoan izan, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea astelehenero biltzen da, 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ARRANDEGIA

PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!

650 31 31 91 USURBIL

ALDAMU



KONPONKETAK

KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea

943 372 795

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 3ra
TXOTX-GARAI

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2020, primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10



Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako satarra

Tel: 943 365 031

Santuenea





INAUTERIAK 2020

OTSAILAK 21-22 USURBIL



dantza



Otsailak 21, ostirala

19:15 Luzaideko konpartsaren kalejira.

20:15 Luzaideko Bolantak frontoian.



Otsailak 22, larunbata

12:00 Mikel Laboan familia plana ZIRIMARAKo kideekin.

12:30 Kalejira GAZTELEKUKo herensugearekin, BURRUNBAZALE txarangarekin. Azken dantza frontoian.

16:00 Gaztelekuan karaoke festa eta bingoa.

18:30 Mikel Laboatik abiatuta, DJ ibiltaria AZTARRIKAREN karrozarekin.

20:00 frontoian, AZTARRIKAREN eskutik performantzea.

00:00 **IÑORKINAK** eta **KILIMAK** taldearekin DANTZA festa.

noqua



Orbeldi dantza taldea, Zirimara taldea, Usurbilgo Gaztelekua, Aztarrika.